

Jakinarazpena: Eskaren emaitzarekin Tokiko Gobernu Batzarraren diktamena

Erabakiaren datuak:

Eguna	2024/07/29
Organoa	Tokiko Gobernu Batzarra

Tokiko Gobernu Batzarrak, goian aipatzen den egunean, **ondoko hau erabaki du:**

Kulturako, Euskarako eta Turismoko Ordezkaritzak, elkarteen lanaren garrantziaz jabetuta, beren helburuak betetzeko ahaleginean, diru-laguntzak ematea proposatzen du, bere aurrekontu baliabideen arabera eta jarraian zehazten diren datetan Tokiko Gobernu Batzarrak onartu eta argitaratutako araudiarekin bat:

Diru laguntzen deialdia	Oinarriak noiz onartu ziren	Oinarriak GAOn noiz argitaratu ziren
Euskara Zerbitzua. Auzoetako Plan integralak	2025/01/28	2025/02/12

JASO DIREN ESKAERAK

Guztira 11 eskaera jaso dira.

ESKABIDEEN BALORAZIOA

Organo instrukziogileak eskaerak aztertu eta gero, balorazioa egiteko xedez sortutako Balorazio Batzordeak txostena egin du eta bertan azaldu dira egindako azterketaren emaitzak

Proiektuen balorazioak eta ondorioak erantsitako txostenean jaso dira.

Horiek horrela, ordezkaritza honek honako erabakiak hartzea proposatzen dio Gobernu Batzarrari:

ERABAKIAK:

1. Onartzea Gau Beltza eta Euskararen Eguneko Egitarauak izeneko dirulaguntza lerrotik datozen 3.975 euroak, oinarrietan zehazten den bezala. Honela, Auzoetako Plan integralak dirulaguntza lerroan guztira 46.475 euro daude banatzeko.

2. Behean aipatutako **diru laguntzak ematea**, deialdiaren oinarriek araututakoaren arabera:

Erakundea	IFZ	Proiektua	Puntuak	Kopurua
Hondarpe Auzo Elkartea	G20521217	Groseko Euskara Plana	61	4.645,77 €
Aieteko Euskara Batzordea	G75144204	Euskara Zerbitzua. Plan integralak - Aieteko Euskara Batzordea	71	4.764,43 €
Bizarrain Kultur Taldea	G20754834	Altzan euskara garatzeko jarduera eta egitasmoak	76	5.057,29 €
KAI-HARRIPE PARTE ZAHARREKO EUSKARA BATZORDEA	G20715868	Euskara Zerbitzua. Plan integralak	63	4.744,65 €

Sarroeta Auzo Elkartea	G20403408	Martutenen Euskaraz	78	2.334,72 €
Kriseilu Kultur Elkartea	G20715918	Egia Euskaraz plan integrala	86	5.321,62 €
JAKINGURA JAKINTZA IKASTOLAKO IGE	G20491536	Antiguako euskara batzordea: auzoko plan integrala 2025	74	4.868,24 €
ERRIBERTXO KULTUR ELKARTEA	G75188664	LOIOLAKO ERRIBERAKO EUSKARAREN PLAN INTEGRALA 2025	64	3.335,67 €
Plazara Goaz, Intxaurrondoko Euskara Batzordea	G20715371	Plazara Goaz 2025eko Intxaurrondoko plana	57	2.083,77 €
BERRITSU Amara Berriko Euskara Elkartea	G75168658	Euskara Zerbitzua. Plan integralak - BERRITSU Amara Berriko Euskara Elkartea	76	6.905,55 €
Añorga Kultur eta Kirol Elkartea	G20189601	Euskara Zerbitzua. Plan integrala Añorga KKE	60	2.413,29 €

3. 46.475 €-ko **gastua** 2025eko Gastuen Aurrekontu Orokorreko Euskara programari dagokion 0219.060.481.02.00 kontu-sailaren kontura ordaintzea.

4. Onartutako zenbatekoen % 70 irizpena onartutakoan **ordaintzeko agintzea**, eta gainerakoa, diru laguntza justifikatzeko eskatutako dokumentuak aurkeztu eta balioztatzean.

5. Erabaki hau **jakinaraztea** udal iragarki-oholean argitaratuta.

Eta hala jakinarazten da, jakin dadin eta behar diren ondorioetarako :

1.- Hamabost laneguneko epea izango dela, jakinarazi eta biharamunetik, diru laguntzari uko egiteko. Diru laguntza onartutzat joko da lehen aipaturiko epean berariaz ukorik adierazten ez badute.

2.- Erabaki honek amaiera ematen diola administrazio-bideari eta hortaz honen aurka berrikusteko errekurtsoa harri ahal izango dela Tokiko Gobernu Batzordearen aurrean eta horretarako hilabeteko epea dagoela, edo bestela zuzenean aurkatu daitekeela bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzietarako Donostiako Epaitegiaren aurrean.

Esandako epeak jakinarazpen hau Udaletxeko iragarki taulan jarri den hurrengo egunetik hasiko dira 2025eko uztailaren 30ean jarria izanik.

Donostia,

Euskara Zerbitzuaren burua